



**Hiztegitxo**

**Hobeto irakurtzen laguntzeko**



<b>ababor</b> 'itsasontziaren ezkerreko aldea'	«Neska, apur bat lotsaturik oraindik, ohe ertzean gelditu zen, galdetuz: — <b>Ababorretik</b> ala istriborretik igoko naiz?»	(53)
<b>adio</b> 'agurra'	«Patxi, ahobero erantzun ondoren, jiratu eta <b>adiorik</b> gabe joan zen, arrauna lepoan zeramala, mendian gora.»	(46)
<b>ahari</b> 'zikiroa, ardi arra, marroa'	«Beste egun batean, Djehak <b>ahari</b> tripakiak lortu zituen azokan, auskalo nola.»	(60)
<b>ahobero</b> 'harroputza, gangarra'	«Patxi, <b>ahobero</b> erantzun ondoren, jiratu eta adiorik gabe joan zen, arrauna lepoan zeramala, mendian gora.»	(46)
<b>ahuspez</b> 'ahoz behera'	«Bidean topatu zuen mutikoa, hantxe estrata erdian, lurrean <b>ahuspez</b> itxura txar-tzarrean, arnasa hartu ezinik eta izerditan blai...»	(15)
<b>aiher</b> 'gogoia bizia, amorrua'	«Dortokari hozka egiteko ere izan zuen gogo edo <b>aiherra</b> momentuan...»	(76)
<b>aipatu bazuen, aipatu zuen</b> Esamoldea: 'Ai, ene!'	«Arrauna <b>aipatu bazuen, aipatu zuen</b> . Ez zen jadanik Patxirentzat gustagarria izango.»	(46)
<b>aise</b> 'erraz, arazo barik'	«Ez zen <b>aise</b> egin zakua Haize Hegoa sartzeko bezain handia. Erronkariko <b>ehule</b> guztiek parte hartu behar izan zuten zakua ehuntzeko beharlekuan.»	(84)
<b>aitañoi-amañoi</b> 'aitatxi-amatxi, aitita-amamak'	«Baina iragan negu osoa Larrañanen eman nuen <b>aitañoi</b> eta <b>amañoiren</b> etxean.»	(80)
<b>akabera</b> 'amaiera, uhinen ura amaitze lerroa'	«Orduan ikusi zuen, dortoka, hondartzan, uhinen <b>akaberako</b> ur arrapaladatik eta aparretik hurbil.»	(74)
<b>alarau</b> 'oihu luzea, ulua'	«Segalariek ez zuten Pelho Lelo bakean utzi harik eta deiadar eta <b>alarau</b> horiek ikasi zituen arte.»	(22)
<b>albait -en</b> 'ahalik ...-en'	«Etxera joateko ordua eta ni hemen! Autoa erosi behar dut <b>albait</b> arinen, ez naiz euripean joango bizikleta zahar honekin...»	(74)
<b>aldarte</b> 'umorea'	«Djeha adarra jotzen ari zitziola susmatu eta kadiari <b>aldartea</b> kaltetu zitzaion.»	(62)
<b>amultsu</b> 'maitasunezkoa'	«...erdi esan zuen amak hasperen <b>amultsuz</b> -. Ai Pelho, Pelho, neure umea, neure koitadua, neure izan argia...»	(27)
<b>andetan eraman</b> 'ohatilan bezala (en camilla)'	«...laguna aulkian <b>andetan eramatea</b> erabaki zuten Bidankozerraino.»	(90)
<b>antxeta</b> 'kaioa, itsas txoria'	« <b>Antxetak</b> eta barkuak ikusten dira, goitik behera, hemendik gainetik! Handixik nator-eta ni, zoroaren moduan ihesean.»	(45)
<b>apaltasun</b> 'umiltasuna'	«Hura ikusi eta, emozioz beterik, Pelho Lelo jende harengana hurbildu eta <b>apaltasun</b> osoz hasi zen esaten...»	(25)
<b>apar</b> 'bitsa (espuma)'	«Uhinaren ura eta <b>aparra</b> erretiratzean, zangoz gora baratzeko.»	(72)
<b>artz</b> 'garbia'	«Garbi-garbi zegoen harri hori, ikaragarri <b>artz</b> , distira ere bazeriola.»	(28)
<b>argi-errainu</b> 'argi izpia'	«...gaua amaitzea baizik ez zuen espero, eguzkia bere <b>argi-errainu</b> epelekin agertu eta ikusi ahal izateko»	(31)
<b>argi-zirrinta</b> 'izpitxo, argi motela'	«Eta ibiliaren ibiliz, <b>argi-zirrinta</b> hori nabarmena izango da, eta Ukaliki ederra egingo zaio eta gozoa.»	(100)
<b>argibide</b> 'informazioa, azalpena'	«Djehak, orduan, bere <b>argibidea</b> eman behar izan zuen.»	(62)
<b>aro</b> 'garaia, sasoi, denbora'	«Badakizue nola frijitzen zen arrautza sua sortu baino lehenagoko <b>aro</b> ospel haietan?»	(32)
<b>arrangura</b> 'ardura, kezka'	«Etxeak eta lurrak utzi beharrekina, <b>arrangura</b> eta dolua zen dena.»	(86)
<b>artatu</b> 'zaindu, jagon'	«...zangoa <b>artatu</b> , zuzendu eta bendatu zioten.»	(90)



<b>artazi</b> 'guraizeak'	«...semeak <b>artaziak</b> hartu eta lihozko oihal hori zati txikitan moztu zuen.»	(14)
<b>artean</b> 'oraindik (irag)'	«Haize Beltza kontent zebilen, <b>artean</b> , harpeko alde batetik bestera, etxea atontzen Ekaitzarentzat.»	(35)
<b>artega</b> 'urduri, kezkaturik'	«...esan zuen Guakamaioek busti-bustirik eta hotzez <b>artega</b> zegoen gau batean—.»	(34)
<b>ataute</b> 'hilkutxa (ataud)'	«...jende asko zihoazen, oinez, negarrez eta otoitzez, <b>atautean</b> defuntua zeramatela...»	(26)
<b>ateko banda</b> 'itsasoko aldera ematen duen aldea'	«...ezkonduz gero, akabo, bertan jarraitu beharko zuen, <b>ateko bandara</b> begira betirako.»	(44)
<b>atondu</b> 'prestatu, ordenan ipini'	«Haize Beltza kontent zebilen, artean, harpeko alde batetik bestera, etxea <b>atontzen</b> Ekaitzarentzat.»	(35)
<b>atsegindun</b> 'plazerez betea (satisfecho)'	« <b>Atsegindun</b> sentitu zen inguruko zelai lehorrei begira. Meseta, goi ordokia, itsasotik urrunen zegoen jadanik.»	(52)
<b>aurki</b> 'laster'	« <b>Aurki</b> zehaztu beharko zen, inozokeria sinplea zen ala delitu nabarmena.»	(88)
<b>aurrez-esan-ezina</b> 'inprebisiblea'	«...edo auskalo zer gertatuko zen orduan, hiriburuko jendearen jokabidea <b>aurrez-esan-ezina</b> delako.»	(77)
<b>aurrez-esatekoago</b> 'prebisibleagoa, asmagarriagoa'	«...honen burubidea <b>aurrez-esatekoagoa</b> izango zen, eta ez zen dortokazoparen ideiatik oso aparte ibiliko...»	(77)
<b>autxa</b> 'frantsesak (despektiboa)'	«Hotzak eta sakrifizioak onuragarriak izanen ziren (...) Larraineko <b>autxak</b> izorratuz gero.»	(85)
<b>auzokalte</b> 'kaltegarria ingurukoentzat'	«— <b>Auzokalte</b> hori! Neskato inozo hori! —esan zioten.»	(38)
<b>azkartu</b> 'arinago bihurtu'	«Udako arratsalde hartan, hodeiak zabaldu eta haizea <b>azkartu</b> ondoren.»	(72)
<b>babalore</b> 'ergela,	«Amak bere umea maite zuen eta Pelho deitzen zion (...), seme <b>babalorea</b> , zozoa eta ezertarako gauza ez dena izanda ere.»	(13)
<b>bafada</b> 'heize ufada, bolada'	«Elurpean eta hotz artean higitzen gara, harik eta Haize Hegoaren <b>bafada</b> epela heldu arte, laztana balitz bezala.»	(82)
<b>baratu</b> 'gelditu'	«Uhinaren ura eta aparra erretiratzean, zangoz gora <b>baratzeko</b> .»	(72)
<b>baratzain</b> 'ortuzaina, baratzea lantzen duen	« <b>Baratzainak</b> , ondo konprenitu ez eta, jarraitu zuen galdezka.»	(58)
<b>barauzale</b> 'barau egiten duena, jan gabe egon'	«Ezin lan, ezin jan, bortxaz <b>barauzale</b> .»	(86)
<b>bazter-nahasle</b> 'liantea,	«— Gu akabatzea nahi duzu, <b>bazter-nahasle</b> horrek? —esaten zioten—.»	(24)
<b>begi-luze</b> 'denari so, jakin-mina duena'	«Posible zen (...) dortokarengana ume <b>begi-luze</b> bat inguratzea, bere aitari eskutik tiraka...»	(77)
<b>begirune</b> 'errespetua'	«...aitak umorez, <b>begirunez</b> eta maitasunez kontatzen ditu haren istorioak.»	(56)
<b>behar handian ibili</b> 'ezer gutxi eduki, pobrea izan'	«Horregatik joaten zenb Djeha Oasitik kanpora, zer aurkituko, eta <b>behar handian ibiltzen</b> zen beti, ez bost ez bi, poltsikoan deus ez zuela.»	(58)
<b>beharleku</b> 'lana, zeregina, eginbeharra'	«Erronkariko ehule guztiek parte hartu behar izan zuten zakua ehuntzeko <b>beharlekuan</b> .»	(84)
<b>beilegi</b> 'horia'	«Ahmed Beni Kasar eta Ali Beni Ahmeden desiraren objektua kadiaren alboan zegoen, <b>beilegi</b> deigarritz jantzia.»	(66)
<b>beltzuritu</b> 'haserretu, sumindu'	«Ehiztariak (...) <b>beltzuritu</b> egin ziren Pelho Lelo agertu eta haren zantzoak entzutean»	(23)



<b>benetalaria</b> 'egia zalea, zintzoa/ sineskorra'	«—Ni benetalaria naiz, mutiko! Benetalaria naizela, txo! Galduta egonez gero, galduta dago, aurkituta badago aurkituta dago.»	(104)
<b>bere kolkorako esan</b> 'isilean, hori pentsatu'	«—Lastima emakumearena! —esan zuen <b>bere kolkorako</b> Patxik.»	(48)
<b>betilun</b> 'goibel, kopetilun'	«Berehala konturatu zen poz-algarak itxura hutsa zirela, ezkontzako gonbidatuak <b>betilunak</b> eta odolberoak zirela...»	(25)
<b>biharamun</b> 'hurrengo eguna'	«Amari obeditu beharrean, <b>biharamunean</b> , Guakamaio Ekaitzaren habiaren bila abiatu zen...»	(34)
<b>bogalari</b> 'arraunlaria'	«—Hara berriz! —esan zuen Patxik, ustekabeen izuturik—. <b>Bogalaria</b> ematen duzu!»	(48)
<b>bortu</b> 'mendiko portua, goiko pasabidea'	«Eta <b>bortu</b> aldeko bazterrak epeltzera heldu zen Haize Hegoaren elezaharra egiten zidan.»	(80)
<b>bortxaz</b> 'nahitaez, ezinbestean'	«Ezin lan, ezin jan, <b>bortxaz</b> barauzale.»	(86)
<b>buhunba</b> 'zurrumbilola'	«Haize Hegoaren <b>buhunbak</b> airean gora altxatu zituen.»	(88)
<b>deliberatu</b> 'erabaki, horrela pentsatu'	«...hori guztia eta gerokoa beste pelikula bat izango zela <b>deliberaturik</b> ...»	(78)
<b>denborale</b> 'ekaitza, eguraldi txarra'	«...ezbeharreko <b>denborale</b> beldurgarri hark harrapatu zituen azpian.»	(36)
<b>deus</b> 'ezer ere ez''	«Horregatik joaten zenb Djeha Oasitik kanpora, zer aurkituko, eta behar handian ibiltzen zen beti, ez bost ez bi, poltsikoan <b>deus</b> ez zuela.»	(58)
<b>deusezko</b> 'ezerezkkoa'	«Baina, ikusezina denez gero, <b>deusezkoa</b> denez gero, berebiziko ahaleginak behar dira egin markatzeko...»	(82)
<b>drezatu</b> 'arteztu, onbideratu, zuzendu'	«Bazen, berriz ere, ohiturak <b>drezatu</b> eta autoritatea indartzeko tenorea.»	(84)
<b>dunbada</b> 'kolpea, zaratotsa'	«Oinaztarriak lehertu eta laster entzuten ziren trumoi <b>dunbadak</b> .»	(76)
<b>dunbots</b> 'ostotsa, trumioia'	«Oinaztargi, <b>dunbots</b> , euri-jasak eta uholdeak. Ekaitzak ahalik eta gogorren eraso zien Oihan handiko bazter haiei eta ihesean zihoazen xibaroiei.»	(36)
<b>durunda</b> 'ostotsa, trumioia, ihurtzuria'	«Eta berriz ere tximistak eta <b>durunda</b> izugarriak.»	(35)
<b>ederretsi</b> 'helburu edertzat onartu'	«...zintzoki jokatzeko eta elkarrekiko laguntasuna <b>ederrestea</b> juratu zuten, jendearen aitzinean.»	(91)
<b>egosi</b> 'ur bero-berotan sukaldatu'	«Sukalde hartan, haragia eta berdurak lapiko handietan <b>egosten</b> ziren.»	(59)
<b>egundo halakorik</b> 'Ene! Hau bai hau!' (harridura)	«— <b>Egundo halakorik!</b> —esan zuen txakurrak.»	(75)
<b>ehule</b> 'oihalgilea, oihala ehuntzen duena'	«Erronkariko <b>ehule</b> guztiek parte hartu behar izan zuten zakua ehuntzeko beharlekuan.»	(84)
<b>elezahar</b> 'kondaira'	«...zer gertatzen zaion itsasaldeko ura gustatzen ez zaionari: (...) bost baso bete ur ematen diotela, itsasokoa. Horixe da <b>elezahar</b> honen mamia eta zera.»	(42)
<b>-en buruan</b> 'garrenean, eta gero'	«...harik eta eguzkiak frijitzen zuen artean, akaso hiru edo lau egunen <b>buruan</b> ...»	(32)
<b>erbi</b> 'basa untxia'	«...derrepentean, ikusi ez du ba Ukalikek <b>erbi</b> bat! Erbia zuria da eta ez dago oso urrun.»	(97)
<b>ernegatu</b> 'gogaitu, erre, atsekabez nekatu'	«Arraunlariak berehala <b>ernegatu</b> ziren (...) babalore zantar madarikatu honek denbora alferrik galarazi zuelako.»	(20)
<b>ernegu</b> 'amorrualdia'	«Hainbeste ibili ondoren, hainbeste <b>ernegu</b> eta buruhausteren ondoren...»	(52)



<b>errabiatu</b> 'amorratua, suminduta'	«Artean, Ekaitza oso <b>errabiatu</b> rik zegoen.»	(36)
<b>errebeskeria</b> 'irresponsabilitatea, gaiztakeria'	«—Hau da fantasia! —loriatzen ziren beren <b>errebeskeriaz</b> , makilaz seinalatu...»	(6)
<b>erreserba</b> 'isilean, bere kolkorako'	«—Hobe horrela —onartu zuen Patxik <b>erreserbaz</b> , neskak itsasoari buruz zer ez zekiela...»	(51)
<b>erretolika</b> 'berriketa / errieta, bronka'	«Ipuina ematen zuen. Zergatik eta zertarako <b>erretolika</b> gehiago!»	(52)
<b>erreusitu</b> 'azertatu, helburua lortu, garaitu'	«Zakua hausten <b>erreusitu</b> arren, apartatzeko astirik ez zuten izan ez Marianok ez Balbinak.»	(88)
<b>errime</b> 'ahots ozenez, bozgoran esan'	«Hitzak barruan gordez gero astun sentitzen zen, beterik bezala, eta <b>errime</b> esan behar zituen.»	(74)
<b>esankizun</b> 'esatekoa'	«—Bereiz daitezela eta bakoitzak bere bizimodua egin dezala! —zuen orain <b>esankizun</b> —.»	(24)
<b>estekatu</b> 'lotu	«...ehun sokaz loturik eta hegoaldera zabalik ahoa, kordak ehun pago eta ehun pinutan <b>estekatu</b> rik.»	(84)
<b>estrata</b> 'galtzada, bidexka'	«Bidean topatu zuen mutikoa, hantxe <b>estrata</b> erdian, lurrian ahuspez itxura txar-txarrean, arnasa hartu ezinik eta izerditan blai...»	(15)
<b>estualdi</b> 'larrialdia	«Ondo ikasi zituen, egia esan, astinaldi eta <b>estualdien</b> ondoren. Eta etxerantz abiatu zen, ostera.»	(22)
<b>etsi</b> 'desesperatu'	«Ama <b>etsitu</b> egin zen, Pelho etsigarria zelako.»	(18)
<b>etsigarri</b> 'jasangaitza, desesperantea'	«Ama etsitu egin zen, Pello <b>etsigarria</b> zelako.»	(18)
<b>etxeko kaltea</b> 'kaltegarria etxekoentzat'	«Noiz arte izango zara <b>etxeko kaltea</b> !»	(17)
<b>huri-jasa</b> 'zaparrada handia'	«Oinaztargi, dunbots, <b>huri-jasak</b> eta uholdeak. Ekaitzak ahalik eta gogorren eraso zien Oihan handiko bazter haiei eta ihesean zihozten xibaroiei.»	(36)
<b>eztei</b> 'ezkontza'	«... <b>eztei</b> egunean denei eskerrak eman ondoren, Patxi, dena amaitu zenean, leher eginda heldu zen hotelera.»	(52)
<b>fosforeszentzia</b> 'berezko argitasun distiratsua'	«...marmoka handi bat ari da pasatzen <b>fosforeszentzia</b> berde-laranja aldakor bereziekin.»	(102)
<b>gaitzuste</b> 'itxaropen gabe'	« <b>Gaitzusterik</b> gabe ibili zen hirian barrena...»	(49)
<b>galgarri</b> 'galtzailea, kaltegarria'	«Eta jende zentzudun asko ere plan <b>galgarri</b> horren alde ematea»	(83)
<b>gantz</b> 'koipe lodia (sebo)'	«Foka- <b>gantzezko</b> zuzi gehienak makila puntaz jo eta itzali ondoren, erdi ilunetan entzuten ditugu.»	(94)
<b>garro</b> 'hanka, tentakulua'	«—Ongi etorri, ongi etorri, ongi etorri... — <b>garro</b> bakoitzeko errepikatu behar balu bezala ongietorria.»	(102)
<b>gero!</b> 'e! (ohartzeko hitza)'	«—Ez berandu etorri, <b>gero!</b> »	(16)
<b>gizajo</b> 'gaixoa, koitadua'	«Pazientzia beharko, dena erraz eta zehatz-mehatz azaldu beharko zion <b>gizajoari</b> .»	(16)
<b>gizaldi</b> 'mendea, denboraldi luzea'	«Hala bizi izan ziren, gizaldirik <b>gizaldi</b> , milaka urtez.»	(32)
<b>gogaikarri</b> 'aspergarria'	«—Apu bat <b>gogaikarria</b> izango da ba bizimodua hemen, zeu bakarrik...»	(44)
<b>goiznabar</b> 'egunsentia	«Ez da gaua, baizik eta ilunabarra; ez da eguna, baizik eta <b>goiznabarra</b> .»	(100)



<b>gomutatu</b> 'gogoratu, oroitu'	«Amak esandakoak ondo <b>gomutatuz</b> , asto gurdi hura profitatu eta agindutakoa bete behar zuela pentsatu zuen.»	(18)
<b>gori</b> 'bero-beroa, gorri bizia'	«...Afrikako eguzki borobil <b>goriaren</b> azpian.»	(58)
<b>gupida</b> 'errukia,, miseriakordia'	«...baina Pelho zereginen baten eske zebilen beti eta, azkenean,amak <b>gupida</b> sentitu zuen.»	(18)
<b>gurma</b> 'bruma, lainoa, gandua'	«Olatuak beti bata bestearen atzetik etengabe, txalupak tutuka beti <b>gurma</b> artean, sardina zaharren usaina beti airean...»	(44)
<b>hagatik</b> 'hargatik, hori dela eta'	« <b>Hagatik</b> inguratu zen, galdetuz...»	(75)
<b>hankari</b> 'korrikalaria, hanka arina'	«...Ukalikek erbi zuria harrapatzeko ahaleginak egin ditu, baina erbia <b>hankari</b> abila da, inork harrapatuko ez duena.»	(97)
<b>hareatze</b> 'hareazko eremua, basamortua'	«Ai, gure Oasia, desertuko geure iturria eta gure gerizpea, <b>hareatzeak</b> berdatu eta loratu arte desagertuko ez dena.»	(68)
<b>harpe</b> 'leizea, kobazuloa'	«Ekaitzaren <b>harpe</b> ingurura heldu zenean, Guakamaiok bere lumak busti zituen.»	(34)
<b>harrezkero</b> 'ordutik aurrera'	«Eta ez zuten <b>harrezkero</b> su faltarik izan, Oihan Handian ez direlako sekula falta izan ez zuhaitzak eta harkaitzak.»	(39)
<b>haserre egin</b> 'errieta egin, bronka bota'	«— Niri ere <b>haserre egingo</b> dit amak.»	(105)
<b>hasperen</b> 'arnasaldi berezia, suspirioa'	«...erdi esan zuen amak <b>hasperen</b> amultsuz—. Ai Pelho, Pelho, neure umea, neure koitadua, neure izan argia...»	(27)
<b>hegal</b> 'hegoa'	«...batak besteari uztea sua, besteak behar duenean. <b>Hegalak</b> errekueratzea ere inportantea da.»	(30)
<b>herrestan</b> 'arrastaka, tarraz'	«...Ukalikek korrika jarraitu du, elur gainean irristatzen den sare handia <b>herrestan</b> eramanez.»	(105)
<b>higatu</b> 'gastatu, kontsumitu'	«Elurpean eta hotz artean <b>higatzen</b> gara, harik eta Haize Hegoaren bafada epela heldu arte...»	(82)
<b>hodeiertz</b> 'zeru ertza (horizonte)'	«...arpoia hartu eta txakurren lerarekin joaten da <b>hodeiertza</b> baino harantzagoko urrunetara.»	(96)
<b>igan</b> 'igon, igo'	«Marianok pagoaren gainean <b>igan</b> eta zakua beherantz tiratzen zuen artean, Balbinak jo eta aizkora ukaldika urratu zuen zakua.»	(88)
<b>ilinti</b> 'sua duen egurra edo palua'	«...baina zaila zen, suaren bila etorri zen-eta, <b>ilintirik</b> ez baitzuen ikusten sua hartu eta eramateko.»	(35)
<b>imintzioka</b> 'keinuka, gestuak eginez'	«...etzan zen, hotzez dardarka dagoenarena eginez, <b>imintzioka</b> , edozeini lastima emateko moduan...»	(34)
<b>iragan</b> 'joan dena, pasatutakoa'	«Baina <b>iragan</b> negu osoa Larrañanen eman nuen aitañi eta amañiren etxean.»	(80)
<b>irauli</b> 'buelta hartu, azpikoz gora jarri'	«Nanok irauli da, beheraka jausi da. Nanoki eskutik heldu eta biak abiatu dira korrika.»	(105)
<b>irizpide</b> 'iritzia, aburua, ustea'	«Entzundakoa obeditzen du, baina <b>irizpiderik</b> gabe.»	(12)
<b>istribor</b> 'itsasontziaren ezker aldea'	«Neska, apur bat lotsaturik oraindik, ohe ertzean gelditu zen, galdetuz: — Ababorretik ala <b>istriborretik</b> igoko naiz?»	(53)
<b>ituragabeko</b> 'itsusia, zatarra, motza'	«...zuek biok nahiko <b>ituragabekoak</b> zarete-eta, emakumea neurekin biziko da!»	(68)
<b>izanen</b> 'izango'	«— Negua den artean <b>izanen</b> dugu hotza...»	(80)
<b>jagoiti</b> 'inoiz ez, egundo ez'	«— Hobe da berant, ezen ez <b>jagoiti</b> ...»	(91)



<b>jantzi-jantzi eginda ibili</b> 'arropa piloa jantzita ibili'	«Mutiko txiki bat da Ukalik, larruzko arropekin <b>jantzi-jantzi eginda ibiltzen</b> dena...»	(96)
<b>jipoi</b> 'astinaldia, paliza'	«Gizonek, txalupatik jaitsita, itzelezko <b>jipoia</b> eman zioten.»	(20)
<b>kadi</b> 'epaile musulmana'	«Eta <b>kadi</b> ofizioan ere oso zuhurra izan zen.»	(66)
<b>karel</b> 'itsasontzien aldeetako goi partea'	«Belaontzia astiro zihoan, itsasoan haizerik egiten ez zuelako. Jendea ikusten zen ontziaren <b>karelean</b> .»	(20)
<b>kaskako</b> 'kaskarrekoa, buruko kolpea'	« <b>Kaskako</b> ederrak jaso zituen eta, lurrean luze geratu zen.»	(26)
<b>kelonio</b> 'dortoka'	«Zantzurik ere ezin zion hartu <b>kelonioaren</b> portaerari.»	(75)
<b>keztatu</b> 'ketu, kez bete'	«...ogia <b>keztatzen</b> , okelaren eta espezieen lurrinak zapore, kutsu edo kolore pixka bat emango ziolakoan ogiari.»	(59)
<b>kiskali</b> 'guztiz erreta'	«Sutan ia <b>kiskalita</b> zeudela, hainbesteko sutea menderatzeko ahalmenik gabe, zer egin ez zekitela, urarekin, suntsiduratik salbatu ziren.»	(38)
<b>koitadu</b> 'gizajoa, gaixoa'	«— Ai Pelho, Pelho, neure umea, neure <b>koitadua</b> , neure izar argia, neure gizajotxoa, huts txiki batzuk egin dituzu, bizitzan suerterik izan ez duzulako...»	(27)
<b>koldar</b> 'beldurtia, kakatia'	«— Aita, <b>koldarra!</b> —oihu egin zuen umeak aita terrazako toldoperantz korrika ikusirik.»	(73)
<b>kolera</b> 'amorrua, haserrealdia, sumindura'	«Muga horrek mugalde bietako jendearen <b>kolera</b> behar du, ongi ikus dadin.»	(82)
<b>konprenitu</b> 'ulertu, aditu'	«Hala ere, errua berea zela pentsatu zuen, painua zertarako zen ongi azaldu gabe hizkera nahastua erabili zuela, eta Pelhok <b>konprenitu</b> ezin.»	(14)
<b>kutsu</b> 'arrastoa'	«...okelaren eta espezieen lurrinak zapore, <b>kutsu</b> edo kolore pixka bat emango ziolakoan ogiari.»	(59)
<b>laino egon</b> 'bare-bare egon, ia olatu barik'	«— Itsasoa <b>laino dago</b> —esan zuen aitak.»	(72)
<b>lander</b> 'txiroa, behartsua'	«Inolako anbizio edo harrokeria gabe eta <b>lander</b> baina lasai bizi ziren sasoiari hobe iritzi eta Guakamaiorekin oso haserre zeuden denak...»	(38)
<b>lauhazka</b> 'galopean'	«Eta bi zangoak ahalik eta gehien luzatuz (...) lasterka eta korrika, balantzaka, eta ia <b>lauhazka</b> , inon gelditu gabe (...) joan zen...»	(27)
<b>lauoinka</b> 'galopean'	«Beldurrak bere zaldiak utzi zizkien eta (...) <b>lauoinka</b> eta zapasaltoka joan ziren bakoitza bere etxera.»	(90)
<b>lausotu</b> 'gardentasuna kendu, difuminatu'	«Euri tantak kristalean behera labaintzen ziren, koadroaren parte batzuk <b>lausotuz</b> .»	(74)
<b>lema</b> 'itsasontziak gidatzekoa'	«Ezin zuen jasan ez itsaso, ez antxeta, ez barku, ez <b>lema</b> , ez amu, ez tolet, ez kostera, ez kofradia, ez berdel (...), ez olagarrorik.»	(45)
<b>lera</b> 'elurretako gurditxoa (trineo)'	«...arpoia hartu eta txakurren <b>lerarekin</b> joaten da hodeiertza baino harantzagoko urrunetara.»	(96)
<b>libra</b> 'ia kilo erdi'	«— Ahmed, ardiak sobran dituzue eta hoge <b>librako</b> arkume bat nahi dut — xuxurlatu zion batari belarrira.»	(67)
<b>liho</b> 'oihal mota (lino)'	«Behin batean, ama on hark <b>lihozko</b> oihal bat erosi zuen, oso garesti ordainduta...»	(14)
<b>loria</b> 'poza, poztasuna'	«Ai, Djeha, gure Oasiko <b>loria</b> urruna!»	(68)
<b>loxka</b> 'lo antzean, erdi lo'	«Orain <b>loxka</b> daude.»	(92)
<b>mailatu</b> 'kolpearen marka (bollo)'	«Eskerrak, bestela hor ibiliko litzateke oraindik ere jipoituta eta <b>mailatuta</b> ...»	(27)



<b>marmoka</b> 'itsasoko izakia (medusa)'	«Ilun dago baina argiak ikusten dira, <b>marmoka</b> handi bat ari da pasatzen fosforeszentzia berde-laranja aldakor bereziekin.»	(100)
<b>matraka</b> 'erretolika, bronka, agiraka'	«Ez zen ondo sentitzen hainbeste <b>matraka</b> eta zigorren ondoren.»	(26)
<b>menturaz</b> 'agian, auskalo, jakizu'	«Edo beste olatu gogorren batek, <b>menturaz</b> , itsasora itzultzen lagundu arte.»	(77)
<b>murru</b> 'harresia, horma'	« <b>Murru</b> handi bat balitz begi-bistakoa!»	(82)
<b>nahinon</b> 'non-nahi, edonon'	«Hotza, iluna, ospela eta gosea <b>nahinon</b> , hala ibiltzen ziren gure arbasoak...»	(32)
<b>nasa</b> 'kaia, portua'	«Halabeharrez jardun zuen, ume sasoiari, <b>nasan</b> eta txalupetan jolasean edo lanean...»	(44)
<b>neskame</b> 'mirabea, zerbitzaria'	«Beharbada gustura geratuko zinateke zu hemen, gurekin, geure alabatxoak izateko, geure <b>neskametxoak</b> izateko, geure txakurtxoak...»	(35)
<b>neskatan hasi</b> 'neskekin ibiltzen hasi'	« <b>Neskatan hasteko</b> eta ezkontzeko sasoiari zegoen...»	(44)
<b>odolbero</b> 'sutsua, bortitza'	«Berehala konturatu zen poz-algarak itxura hutsa zirela, ezkontzako gonbidatuak betilunak eta <b>odolberoak</b> zirela...»	(25)
<b>ohore</b> 'ondra, izen ona'	«Lortu egin zituela esan dezagun, bere <b>ohorez</b> .»	(60)
<b>oinaztargi</b> 'inisitua, tximista'	«Halako batean, Ekaitza zetorrela entzun zen, <b>oinaztargiak</b> eta trumoiak zekartzala bide-aurreko.»	(35)
<b>oinaztura</b> 'tximista, oinaztargia, inisitua'	«Hodei astun, beltz, azkarrak zabaltzen ari ziren eta <b>oinazturak</b> goitik behera modu ikaragarrian zartatzen ziren.»	(72)
<b>olagarro</b> 'hamarratza (pulpo)'	«Ezin zuen jasan ez itsaso, ez antxeta, ez barku, ez lema, ez amu, ez tolet, ez kostera, ez kofradia, ez berdel (...), ez <b>olagarrorik</b> .»	(45)
<b>oniritzi</b> 'onetsi, onartu, ontzat eman'	«...eta halako plan makurra <b>oniritzi</b> zuten...»	(82)
<b>oratu</b> 'eutsi'	«Eta zergatik zaude horrela, azenarioei <b>orutzen</b> diezula oraindik?»	(58)
<b>orro</b> 'oihu handia eta ozena'	«—Astoa! —egin zuen juduak <b>orroa</b> — . Astoa! Norena izango da ba asto hori ez bada neurea!»	(65)
<b>orube</b> 'lursaila, eremua'	«Pagoen eta <b>orubeen</b> artetik igo eta neska polit bat topatu zuen baserri atarian.»	(44)
<b>orube</b> 'lursaila, territoria'	«Txakurrak bere kaxetatik zaintzen zuen bere <b>orubea</b> .»	(77)
<b>ospel</b> 'iluna, itzaltsua, gerizpetsua'	«Badakizue nola frijitzen zen arrautza sua sortu baino lehenagoko aro <b>ospel</b> haietan?»	(32)
<b>ostu</b> 'lapurtu, ohoindu'	«"Baina, ematen ez badigu, <b>ostu</b> egin beharko diogu...»	(34)
<b>otu</b> 'bururatu, okurritu'	«Baina maitasun deklaraziorik egin edo hitzordurik eskatu baino lehenago, zuhurrena galdera hau egitea <b>otu</b> zitzaion.»	(46)
<b>pago</b> 'zuhaitz handia (haya)'	« <b>Pagoen</b> eta orubeen artetik igo eta neska polit bat topatu zuen baserri atarian.»	(44)
<b>painu</b> 'oihala'	«Hala ere, errua berea zela pentsatu zuen, <b>painua</b> zertarako zen ongi azaldu gabe hizkera nahastua erabili zuela, eta Pelhok konprenitu ezin.»	(14)
<b>popa ustela</b> '(esamoldea: ipurdi ...)'	«—Azkena, <b>popa ustela</b> ! —oihu egiten zioten elkarri.»	(49)
<b>premia</b> 'falta, beharrezana'	«—Hago isilik! —zakar esan zion bat-batean neskari—. Hire <b>premiarik</b> ez dinat nik.»	(45)





<b>profitatu</b> 'baliatu, aprobetxatu, onura atera'	«Amak esandakoak ondo gomutatuz, asto gurdi hura <b>profitatu</b> eta agindutakoa bete behar zuela pentsatu zuen.»	(18)
<b>segatu</b> 'ebaki, moztu'	«Handik gutxira, jendea topatu zuen soroan garia <b>segatzen</b> eta gari-sortak lotzen.»	(22)
<b>seko tontoa</b> 'gutziz tentela, lelo hutsa'	«Arraunlaria asmo bila zetorren edo <b>seko tontoa</b> zen, edo bi zeretan positibo.»	(46)
<b>sigi-saga</b> 'ezker-eskuin mugitu, sugeak legez'	«...hondartzan zehar <b>sigi-saga</b> joan zen.»	(75)
<b>sunda</b> 'usain sarkorra (janariena...)'	«Ur gazirik, nasarik, uhinik eta arrain <b>sundarik</b> gabeko lekuan zegoen azkenean.»	(52)
<b>tantai</b> 'erraldoia'	«Orduan agertu da sekulako olagarro handi <b>tantai</b> itzelezkoa.»	(102)
<b>tapitu</b> 'tupitua, sarria, zarratua'	«Pentsamendu hori gogoan zeramala joan zen Guakamaio Oihan Handian barrera alderik sakon eta <b>tapituenerantz</b> .»	(34)
<b>tenore</b> 'abagunea, egokiera, une aproposa'	«Bazen, berriz ere, ohiturak drezatu eta autoritatea indartzeko <b>tenorea</b> .»	(84)
<b>tolet</b> 'estakatxoa, arrauna lotzeko euskarri'	«Ezin zuen jasan ez itsaso, ez antxeta, ez barku, ez lema, ez amu, ez <b>tolet</b> , ez kostera, ez kofradia, ez berdel (...), ez olagarrorik.»	(45)
<b>tripakiak</b> 'sabeleko erraiak'	«Beste egun batean, Djehak ahari <b>tripakiak</b> lortu zituen azokan, auskalo nola.»	(60)
<b>trokotz</b> 'dorpea, txarto egina'	«Makila <b>trokotz</b> batzuekin inguratu zitzaizkion eta jipoi penagarria eman zioten horiek ere.»	(23)
<b>tutuka</b> 'tu egiten, bozina jotzen'	«Olatuak beti bata bestearen atzetik etengabe, txalupak <b>tutuka</b> beti gurma artean, sardina zaharren usaina beti airean...»	(44)
<b>txapel okerreko karabinero</b> 'guardia zibila, espainiar polizia'	«Lebitadun alkateek <b>txapel okerreko karabineroekin</b> koordinatu zuten erabakia.»	(84)
<b>txilaba</b> 'jantzi txanoduna, tunika luzea'	«Saltzaile juduak Djeharen argudioa konprenitu zuen, eta <b>txilaba</b> dotore bat eman zion.»	(64)
<b>ubel-ubel eginda</b> 'ubelduraz josita, more'	«Ubel-ubel eginda heldu zen, baina beste zeresanik ikasi gabe. Edo ikasitako zeresanak ahaztuta.»	(27)
<b>ubeldura</b> 'ubeldua, odolbatua (kolpe ondor)	«Leunki ukitu zituen semearen <b>ubeldurak</b> eta urratuak, laztanez eta maitasunez hobeto sendatuko zirelakoan...»	(27)
<b>ufadaka</b> 'ufakoa, putzaldia'	«Haize Hegoa alde baterantz eta besterantz hasi zen abiatzen, ufadaka, zakua lehertu beharrez...»	(85)
<b>uhin</b> 'olatua'	«Batzuek horixe dute gogokoa: itsasoa, kostaldea, <b>uhinak</b> , arrantza, txalupak, eta legatzaren buztana.»	(43)
<b>ukaldika</b> 'kolpeka'	«...Balbinak jo eta aizkora <b>ukaldika</b> urratu zuen zakua.»	(88)
<b>umil</b> 'apala, xumea'	«...burua aurreko oinen gainean pausatu eta loaldi <b>umil</b> merezia onetsi.»	(78)
<b>upel</b> 'kupela'	«Hodei <b>upel</b> erraldoiak bertan behera hustu behar balira bezala.»	(76)
<b>ur arrapalada</b> 'uhinen amaieran parrastada, abiada'	«Orduan ikusi zuen, dortoka, hondartzan, uhinen akaberako ur <b>arrapaladatik</b> eta aparretik hurbil.»	(74)
<b>usaiako</b> 'ohikoa, betikoa, tradizionala'	«...Erriberan gora <b>usaiako</b> bidea eginez.»	(85)
<b>xede</b> 'helburua, jomuga'	« <b>Xedea</b> argia zen: ez ziotela Haize Hegoari beste aldera pasatzen utziko.»	(84)
<b>xixtrin</b> 'ziztrina, argaltxoa eta txikia'	«—Zergatik utzi diozu neskato xibaro <b>xixtrin</b> horri sua lapurtzen?»	(36)